

GERRA HOTSA

Bi edo hiru aldiz topatu dut Clinton denbora gutxian. Komunikabideetan topatu, jakina; eta ez Bill, Hilary baizik. Joan den astean Bilbon informazio teknologiei buruz egindako kongresuan parte hartu zuen bideokonferentziaz. Ez dakit han zer esan zuen. Ez nion jaramon handirik egin albiste hari. Zer arraio egiten du horrek kongresu horretan? Zenbat kobratu ote die antolatzaileei? Zer demonio egiten du Diputazio batek halako ekitaldi handios bat eratzten? ... horrelako galderak bururatu zizkidan ETBn ikusitako hark, besterik ez.

Larunbatean topatu nuen berriz Hilary Clinton. Iraken aurkako gerrari buruz harekin egindako elkarrizketa igandean emititzekoa zen Irlandako TV3. Interesgarriagoa dirudi horrek, informazio teknologiei buruz esan ditzakeenak baino. Elkarrizketa horren edukiaren aurrerapenak egiten zituzten egunkariak. «Clintonek denbora eskatzen du begiraleek euren lana egin dezaten» esaten zuen larunbateko batek. Bushen kontra eta Frantzia eta Alemaniaren alde lerratzen zela ematen zuen aditzera. AEBko zutabegileek Chirac-i «tximino gaztajale koldarra» esaten ziotela ere irakurri nuen. Igandean, berriz, beste titular hau zekarren beste irlandar egunkari batek: «Hilaryk Bushen gerra babes dezagula esaten digu». Dublingo Shannon aireportuak amerikar gerra-hegazkinak errekinenez hornitzea eskatzen omen zuen Clintonek, gerra Nazio Batuen bigarren erabakirik gabe hasiko balitz ere. Elkarrizketa bera zuten mintzagai bi egunkariak: zeini sinetsi behar nion? Ez nuen Clintonen elkarrizketa entzuterik izan, etxera bueltan baintorren. Gerra guztietan egia omen da beti lehen biktima.

Bidaideak bere zalantzak aipatu zizkidan. Ez zekiela zer pentsatu, amerikarrek gerra dagoeneko erabakia ote zuten ala mehatxu sinesgarriak egin nahi ote zituzten, Saddamek amore emateko bide bakarra zelakoan. Abioiaren komandanteak eten zuen gure solasa: «Ohartuko zinetenez, zain gaude noiz aireratuko. Izan ere, aire trafikoa arazoak daude, Erresuma Batuak bere aire espazioan ezarritako errestrikzioak direla eta». Gerra danborren antza hartu nien motorrei ordu erdi beranduago aireratzen hasi ginenean. Egunkariak banatzen hasi ziren gero azafatak. Espainiarrek letra larritan zekarten Andoaingo hilketaren berri.